BIZITEGI ERAIKINA — ELKANO 6

D MAILA



Egilea eta data: Jose Galo Aguirresarobe; 1865

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi jasodura mantsardatu bat –txapitulak zituen jatorrizko teilatupea eta 1867an zabaldutako txapitulak ordezkatzen dituena–. Behe oinean harlanduzko fatxada eta goi oinetan zeramikaz estalita. Aluminiozko edo PVCzko begiratokia du erdialdean, 1923an eraiki zen zurezkoa ordezkatzen duena. Behe oina oso aldatuta dago (baoak 1911-12an berrituak eta berriki xaflatuta).

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatua (5. goi oina); begiratokia.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira gainerako irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.